

MARTXOAREN 23TIK 27RA 2021

azkunazentroa.eus  
#gutunzuria

2021-2020

HEMEN

Non guztiak biltzen  
dituen lekua\*

# gutunzuria

BILBOKO LETREN NAZIOARTEKO JAIALDIA

Babeslea:

Laguntzaileak:

**Bilbao**

**bbk**

  
metro bilbao



INSTITUT  
FRANÇAIS

gizartea eta kultura  
garaikidea

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

\*Koldo Izagirreren *Hemendik idazten dugu* poemako bertsoan inspiratutako izenburua.

2021-2020

## HEMEN

Non guztiak biltzen dituen lekua\*

Gutun Zuria. Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia martxoaren 23tik 27ra bitartean egingo da, HEMEN. Non guztiak biltzen dituen lekua izenburu orokorrekin, Koldo Izagirren Hemendik idazten dugu poemaren bertsoan inspiratuta.

Gutun Zuria 2021-2020 bi edizioen artean ibiliko da oraingoan. 2020an, Jaialdiak hurbilpen bat egin nahi zuen, saiakera kolektibo gisa, gizartean izaten diren eraldaketetara. Pandemiarekin bizkortu egin da aldaketa-prozesua, eta egoera berrirakurtzeko aukera eman du. Topaketa ezin izan zen aurreikusitako formatuan egin, baina proiektuak zabalik jarraitu du, denbora errealeko saiakera gisa, eta Saiakera hemen hasten da liburua bihurtu da. Antologia horretan, 16 egilek errealitateari buruzko gogoetak proposatzen dituzte, nork bere belaunaldi-, ideologia- edo geografia-ikuspegitik begiratuta; eta horrekin irekiko da aurtengo Jaialdia.

Horrez gain, 2021eko edizioa zabaldu egingo da irakurketaren begirada artistiko berrietara eta artearen begirada literario berrietara, euskal literatura eta hizkuntza ez-hegemonikoen ekosistema jorratuz, literaturan jatorri migratzaileko ahots berrien sorrera ikertuz, sorkuntza garaikidearen inguruan saiakera eginez. Dozenaka egile ibiliko dira horretan guztian, hitza, saiakera, edizioa, antropologia, soziologia, filosofia, kazetaritza, ikerketa, arte bisualak edo zuzeneko arteak oinarritzat hartuta.

Gutun Zuria 2021-2020-k bere formatuak dibertsifikatu ditu, Jaialdira joateko modu berriak proposatuz.

Aurrez aurreko HEMEN batekin, Auditorioko topaketa, hitzaldi eta aurkezpenekin, eta programa publiko batekin, non hitzak liburuetakori orrien muga gainditzen duen eta hizketan hasten den musikarekin, artearekin, ahotsarekin, edizioarekin eta beste diziplina batzuekin. Programa LiburudendAZera hedatuko da, Jaialdiko liburu-dendara; argitalpen-ekoizpenaren eta sarreren erosketaren erreferentziazko espazioa eta topaketen ondoren liburuak sinatzeko gunea ere izango da.

HEMEN Online batekin, zeina, Bilbotik mundu osora zabaltzeaz gain, beste zentro eta hiri batzuetara hedatuko den. Gutun Zuria Buenos Aireseko Platako Unibertsitate Nazionalan, Habanako Artista x Artista espazioan eta Casablancako Boultek-Centre des Musiques Actuelles gunean ere izango da. Zuzeneko egile eta artistekin.

Egileen testigantzak eta ekarpenak bilduko dituen HEMEN batekin, Jaialdiaren artxibo eta legatu gisa, bestelako denborak proposatuko dituen literatura- eta arte-sistemaren inguruko hausnarketa, hitz eta jakintzarako. Eduki horietako batzuk jaialdiko irratitik sortuko dira, Gutun Zuria Irratitik.

Hemen? Han? Hemen eta han? Hemen edo han? Ez hemen ez han? Zenbat non biltzen ditu toki batek, Koldo Izagirrek susmatu bezala? Nola eusten zaio errotze bati, nola ukatzen da, nola eraikitzen da, nola partekatzen da? Zergatik ihes egiten du idazketak liburuetakori eta beren orrietako 'hemen' horretatik? Zein da betiko ibiltariaren tokia? Ez al da hori, izan ere, idaztearen eta irakurtzearen artea? Beti, denbora guztian, toki guztietan egitea? Museo bat al da gorputza? Gaixotasun somatikoa bat al da artea? Egia da artearen tokia edo artea da egiaeren tokia? Nola lortzen du jaialdi batek bere tokia, ez bada, hain zuzen, tokia eskainiz?

Galdera guztiak zabalik daude Gutun Zuria. Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiaren 2021-2020 edizioan.

Batzorde betearazlea: Raker Esparza, Alasne Martín, Fernando Pérez.  
Aholku Batzordea: Iván de la Nuez, Iñaki Esteban, Beñat Sarasola.

\*Koldo Izagirren Hemendik idazten dugu poemako bertsoan inspiratutako izenburua.

## PROGRAMA

## MARTXOAK 23

ASTEARTEA

18:00 AUDITORIOA	Liburuaren aurkezpena <b>Iván de la Nuez, Patxi Eguiluz (Caniche Editorial), Fernando Pérez</b> <i>El ensayo empieza aquí (Saiakera hemen hasten da)</i>	①
19:00 AUDITORIOA	Solasaldi musikatua <b>Anari &amp; Iñigo Astiz</b> <i>Inon izatekotan</i>	③

## MARTXOAK 24

ASTEAZKENA

12:00 AUDITORIOA	Liburuaren aurkezpena <b>Mabi Revuelta, Susana Blas, Iñigo Ordozgoiti</b> <i>Acromática. Una Partida Inmortal (Akromatikoa. Partida Hilezkorra)</i>	①
17:00 AUDITORIOA	Solasaldia <b>Miren Agur Meabe, Olga Novo &amp; Beñat Sarasola</b> <i>Txikitik idaztea handi</i>	③
18:00 MEDIATEKA BBK	Programa publikoa <b>'Irakurketa kultura' kluba</b>	②
18:30 KULTUREN ATARIA	Programa publikoa <b>Gutun Zuria Irratia. Jaialdiaren irratia</b>	
19:00	Online solasaldia. Nueva York, Buenos Aires eta Palma Mallorcakoa <b>Martha Rosler, Marcelo Expósito &amp; Imma Prieto</b> <i>¿Cómo hemos llegado allí desde aquí? (Nola iritsi gara hara hemendik?)</i>	⑤
20:30 KUBA	Solasaldia Artista X Artista-tik (La Habana) <b>Martica Minipunto</b> <i>Escribir con la lengua (Mihiarekin idazten)</i>	⑤

## MARTXOAK 25

OSTEGUNA

12:00 AUDITORIOA	Liburuaren aurkezpena <b>Arantxa Pereda, Mikel Bilbao</b> <i>Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao. De almacén de vinos a Centro de Sociedad y Cultura Contemporánea (Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao. Ardoen biltegitik Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentrorra)</i>	①
13:00 MEDIATEKA BBK	Programa publikoa / Aurkezpena <b>Oscar Gómez Mata y Espe López</b> <i>Deriben katalogoa: Ariadnaren haria</i>	①
17:00 AUDITORIOA	Solasaldia <b>Kaouter Adimi, Margaryta Yakovenko &amp; Iñaki Esteban</b> <i>Viviendo entre dos mundos, eligiendo el espacio propio (Bi munduren artean bizitzen, norberaren espazioa aukeratzuz)</i>	③
17:00 <b>ARGENTINA</b>	Solasaldia Universidad Nacional de La Platatik (Buenos Aires) <b>Damián Tabarovsky</b> <i>El aquí como respuesta excéntrica (Hemen, erantzun bitxi gisa)</i>	⑤
18:00 MEDIATEKA BBK	Programa publikoa <b>'Irakurketa kultura' kluba</b>	②
18:30 KULTUREN ATARIA	Programa publikoa <b>Gutun Zuria Irratia. Jaialdiaren irratia</b>	
19:00 AUDITORIOA	Solasaldia <b>Mónica Ojeda, Itxaro Borda, Yuri Herrera &amp; Arrate Hidalgo</b> <i>Lenguas privadas, idiomas públicos (Hizkera pribatuak, hizkuntza publikoak)</i>	③

## MARTXOAK 27


LARUNBATA

10:00 AUDITORIOA	Programa publikoa / Topaketa <b>Argitaletxe independenteak</b> <i>'Hemen'go ahotsak edizio independentean</i>	②
13:00 AUDITORIOA	Topaketa <b>Marta Peirano</b> <i>El enemigo conoce el sistema (Etsaiak sistema ezagutzen du)</i>	③
17:00 AUDITORIOA	Solasaldia <b>Amets Arzallus, Ibrahima Balde &amp; Goizalde Landabaso</b> <i>Hormak eta zeharkaldiak</i>	③
19:00 AUDITORIOA	Solasaldia <b>David Le Breton, Anna Maria Iglesia, Lara Moreno &amp; Txani Rodriguez</b> <i>Caminar, encontrarse, distanciarse (Ibili, elkar topatu, aldendu)</i>	③

## MARTXOAK 26

OSTIRALA

10:00 AUDITORIOA	Sare Sozialei buruzko topaketa gazteekin <b>Marta Peirano</b>	④
12:00 AUDITORIOA	Liburuaren aurkezpena <b>Sra. Polaroiska (Alaitz Arenzana &amp; Maria Ibarretxe), Haizea Barcenilla, Bea Aparicio</b> <i>Gorputzak, desirak eta almendratxo batzuk. Sra. Polaroiskaren film bat</i>	①
17:00 AUDITORIOA	Solasaldia <b>Eider Rodriguez, Aixa de la Cruz, Katixa Agirre &amp; Haizea Barcenilla</b> <i>Saiakera eta fikzioaren bidegurutzean</i>	③
18:00 MEDIATEKA BBK	Programa publikoa <b>'Irakurketa kultura' kluba</b>	②
19:00 AUDITORIOA	Solasaldia <b>Marta Rebón, Alexei Yurchak, Santiago Gerchunoff &amp; Iván de la Nuez</b> <i>Aquí en el Mausoleo de Lenin (Hemen, Leninen Mausoleoan)</i>	③
20:30 <b>MAROKO</b>	Solasaldia Boultek - Centre des Musiques <b>Actuelles-etik (Casablanca)</b> <b>Salah Malouli</b> <i>Cultura contemporánea en Darija (Kultura garaikidea Darijan)</i>	⑤

- 
- ① Sarrera dohainik lekua bete arte
  - ② Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus-en edo Az Infon izena emanda, lekua bete arte
  - ③ • 3€ / 2€ Az Txartelarekin (bi sarrera eros daitezke txartel bakarria aurkeztuta)  
2€: ikasleak eta 65 urtetik gorakoak  
• Aldi bereko itzulpena (Gaztelania, Euskara eta Ingelesa), Anari eta Iñigo Astizen arteko solasaldi musikatua izan ezik.
  - ④ Ikastetxeekin hitzartua
  - ⑤ Azkuna Zentroko Youtube kanala

## SARREREN SALMENTA:

- azkunazentroa.eus
- Az Info: martxoaren 9tik 17ra
- liburudendAZ: martxoaren 18tik 27ra

Gutun Zuriaren programazioa alda daiteke. Kontsultatu eguneratutako informazio guztia azkunazentroa.eus helbidean.



Topaketak, hitzaldiak eta programa publikoa

Auditorioa  
Gutun Zuria Irratia  
LiburudendAZ  
Mediateka BBK



Streaming konexioa

Habana  
Buenos Aires  
Casablanca  
New York  
Palma Mallorcakoa




Argitalpen-ekoizpena

Auditorioa  
LiburudendAZ



Kapsulak

azkunazentroa.eus



TOPAKETAK ETA  
HITZALDIK

# HEMEN

Jaialdiak Azkuna Zentroko **Auditorioan** egiten diren **topaketen** eta **hitzaldien** formatuari eutsi dio, eta **programa publikoari** ere, non hitzak liburuen orrien muga gainditzen duen eta musika, artea, ahotsa edo edizioa bezalako diziplinekin hitz egiten duen. Programa **LiburudendAZera** hedatuko da, **Jaialdiko liburu-dendara**; argitalpen-ekoizpenaren eta sarreraren erosketaren erreferentziazko espazioa eta topaketen ondoren liburuak sinatzeko gunea ere izango da.

## Anari

SOLASALDI MUSIKATUA **IÑIGO ASTIZ** EKIN

**Inon izatekotan**

**Anari Alberdi** abeslariaren eta **Iñigo Astiz** kazetari eta idazlearen arteko elkarrizketa musikal batekin inauguratuko dira Auditorioko topaketak. Bertan, musikagileak abesti bat konposatzeko egiten den bidez hitz egingo du. Horretarako, bere ibilbide luzeko zenbait kantu esanguratsu hautatu eta abestuko ditu emanaldian zehar, gitarra soilaren laguntzarekin. **Iñigo Astizen** galderei erantzunez, kantu bat nola eta nondik sortzen den azalduko digu musikariak. Eta **Anariren** kantuetan hitzak duen garrantziari helduz, idazteko orduan izan duen bilakaeraz, aurkitu duenaz, bilatu duenaz, aurkitu ez duenaz, eta bidean galdu duenaz jardungo du, besteak beste.

Martxoak 23, asteartea

19:00 | AUDITORIOA

Euskara



ANARI  
ALBERDI

Kantaria eta musikagilea. Euskal musikaren panoramako ahotsik pertsonalenetako bat, bere letren balio poetiko eta literarioagatik.



IÑIGO  
ASTIZ

Kazetaria eta idazlea. Literaturako Euskadi Saria 2020an *Joemak eta Polasak* (Elkar, 2019) lanarekin.



MIREN  
AGUR  
MEABE

Idazlea, filologoa eta itzultzailea. Forough Farrokhzad poeta irlandarra eta Skolastique Mukasonga eleberrigile ruandarra euskaratu ditu, besteak beste.



OLGA  
NOVO

Poeta, saiakeragilea, itzultzailea eta literatura-kritikaria galegoz. Poesiako Sari Nazionala *Feliz Idade* lanarekin (Faktoria K de libros, 2019).



BEÑAT  
SARASOLA

Idazlea eta ikertzailea. Susa argitaletxearen *Munduko Poesia Kaierak* bilduma zuzentzen du.

## Miren Agur Meabe eta Olga Novo

SOLASALDIA **BEÑAT SARASOLA** REKIN

**Txikitik idaztea handi**

**Miren Agur Meabe** eta **Olga Novo**, bi idazle handi, txikitzat jotzen diren literatur generoetan eta hizkuntzetan idazten dutenak.

**Olga Novo**, egungo galiziar poeta handienetako bat dugu eta gauza bera esan daiteke **Miren Agur Meaberen** inguruan Euskal Herriari dagokionez. Bakoitza bere tokitik, antzeko zidor poetikoetan murgiltzen dira, eta beraz, saio honetan aukera izango dugu bi idazleen sorguneen eta kezka literarioen inguruan jakiteko. Zein dira beren abiapuntu, zeharbide eta jomuga poetikoak? Zer da poesia idaztea egun? Zer da gazteleraren aldamenean txikiak diren hizkuntzetan idaztea? Beren ibilbidearen gorenean dauden bi poeta ezagutzeko parada ezin hobea.

Martxoak 24, asteazkena

17:00 | AUDITORIOA

Euskara

## Martha Rosler eta Marcelo Expósito


Martxoak 24, asteazkena  
19:00 | ONLINE  
Gaztelania

SOLASALDIA **IMMA PRIETO**REKIN

### ¿Cómo hemos llegado allí desde aquí? (Nola iritsi gara hara hemendik?)

Elkarrizketa honen izenburuak gelditzera behartzen gaitu. Galdera plurala da, leku eta denbora batetik harantz doana. Aldi berean, hausnarketa izugarri zehatz batean sartzen gaitu: hemen eta orain geopolitikoa eta historikoa, iraunkorra. Paradoxa da berriro historiara itzultzeko beharra planteatzeko modu bakarra.

**Martha Rosler-en** (New York) lana gizarte garaikideen inguruko ikerketa- eta analisi-lerro baten barruan kokatzen da, eta azken hirurogei urteetan eragin gehien izan duen artistetako bat da. Bere praktika lengoia artistikoen ugaritasunetik eta idazketaren edo irakaskuntzaren bidez ehun soziala aktibatuzeko modu desberdinetatik abiatzen da. **Marcelo Expósito** (1966) Bartzelonan, Buenos Airesen eta Madrilan bizi da azken urteotan. Artista, kultura-kritikaria, idazlea eta irakaslea da. Bere lana aldizka erakutsi da jaialdi, topaketa, hitzaldi, biltzar, erakunde eta erakusketetan.




**MARTHA ROSLER**

Artista bisuala, argazkilaria eta performerra. Diskurtso feminista garaikideen funtsezko figura.



**MARCELO EXPÓSITO**


Artista eta kultura-kritikaria. Aktibismo artistikoan eragin gehien duen pertsonailetako bat.



**IMMA PRIETO**

Es Baluard Museu d'Art Contemporani de Palmako zuzendaria. Komisariotzaren, ikerketaren eta idazketaren arteko elkarrizketa oinarri hartuta garatzen du jardueraren profesionala.

Arg.: B. Ramón



**KAOUTHER ADIMI**

Ijjerren jaio eta Parisen bizi den idazlea. Renaudot des Lycéens 2017 eta Prix du Style 2017 sariak eskuratutako *Nuestra riqueza. Una librería en Argel* (2017); *Libros el Asteroide*, (2018) lanaren egilea.

Arg.: Sacha Lenormand



**MARGARYTA YAKOVENKO**

Ukrainan jaioa, zazpi urte zituela Murtziara emigratu zuen gurasoekin. Nazioarteko politikan espezializatutako kazetaria da. *Desencajada* (Caballo de Troya, 2020) lanaren egilea.



**IÑAKI ESTEBAN**

Filosofian lizentziatua, kazetaria eta idazlea. Miguel de Unamuno Saria, *Libertad y sentido en las sociedades democráticas* (Biblioteca Nueva, 2004) lanarekin.

## Kaouther Adimi eta Margaryta Yakovenko

Martxoak 25, osteguna  
17:00 | AUDITORIOA  
Gaztelania

SOLASALDIA **IÑAKI ESTEBAN**EKIN

### *Viviendo entre dos mundos, eligiendo el espacio propio (Bi munduren artean bizitzen, norberaren espazioa aukeratzuz)*

**Kaouther Adimi** eta **Margaryta Yakovenko** etorkinen alabak beren familien kulturen eta balioen eraginpean koskortu ziren, baita egokitze-prozesuaren bilakaeran ere. Bi mundutan bizitzeko errealitatea areagotu egiten zen haiengan, eguneroko esperientzia familiaren jatorritik eta aginduetatik urruntzen zelako, bizi ziren lekuan garatu baitzen haurtzarotik. Beren espazioa konkistatzeko, familiekiko distantzia jartzeaz gain, borroka egin behar izan zuten, Frantziar eta Espainiar, atzeritartzat jotzen zituzten guztien begiradapean. Elkarrizketak berariaz jorratuko ditu literaturan jatorri migratzaileko ahots berrien sorrera eta identitateen inguruko idiosinkrasia, identitate horiek ezin baitira ohiko estatu-nazio baten ideien barruan sartu.


## Mónica Ojeda, Itxaro Borda eta Yuri Herrera

Martxoak 25, osteguna  
19:00 | AUDITORIOA  
Euskara / Gaztelania

SOLASALDIA **ARRATE HIDALGO**REKIN

### *Lenguas privadas, idiomas públicos (Hizkera pribatuak, hizkuntza publikoak)*

**Itxaro Bordak**, **Mónica Ojedak** edo **Yuri Herrerak** euskaraz, gaztelaniaz edo espainieraz idazten dute. Baina haien idazkerak edozein arauen gainetik doaz, eta aurre egiten diote beren hizkuntzen estandarizazioari, aberastuz era horretan. Hizkera berezia da haiena, gai baita hizkuntza harrapaezina, sofistikatua eta aldi berean lagunartekoa sortzeko, non jargoiak, familiako hizkerak edo antzinako eta egungo esapideek berezko hizkuntza bat eratzen baitute bitxikeria boteretsu honekin: eskusiboki haien literaturakoa izanik, askok uler dezakete.



**MÓNICA OJEDA**

Idazlea. 'Bogotá 39-2017' zerrendako kidea, zeinak biltzen baititu hamarkada honetan talentu eta proiektio gehien dituzten 40 urtetik beherako 39 idazle latinoamerikarrak.



**ITXARO BORDA**

Idazlea, poeta, kronikagilea eta konpositorea. Literaturako Euskadi Saria 2002an %100 basque lanarekin (Susa, 2001)



**YURI HERRERA**

Idazlea. Bere *Señales que precederán al fin del mundo* (Periférica, 2009) liburua XXI. mendeko ehun libururik onenen artean sartuta dago.



**ARRATE HIDALGO**

Itzultzailea, editorea eta kultura-asaldatzailea. Etorbizuna irudikatzeko hainbat ekimenetan lan egiten du, bereziki queer ikuspegitik.

## Eider Rodriguez, Aixa de la Cruz eta Katixa Agirre

SOLASALDIA **HAIZEA BARCENILLA**REKIN

### Saiakera eta fikzioaren bidegurutzan

**Eider Rodriguezek**, **Katixa Agirrek** eta **Aixa de la Cruzek** haien lanean behin eta berriz errepikatzen diren gaiak jorratuko dituzte, hala nola gorputza eta idazketa, amatasuna eta sorkuntza edota literaturan dauden kristalezko sabaiak.

**Katixa Agirre** ibilbide sendoko narratzailea da, eta bere azken liburuak nabarmentzen dira bertan: *Atertu arte itxaron* eta *Amek ez dute* nobelek modu ausart eta argian txertatu dituzte saiakera-idazlanak fikzioan. **Aixa de la Cruz** eleberrigilea eta ipuingilea da, eta *Cambiar de idea* izeneko azken lanean bide berri bati ekin dio, identifikazio eta politizazio feministen prozesuetan lekukotzek duten funtzioa ikertu baitu. **Eider Rodriguez** egungo kontakizun-idazlerik gailenetako bat da, eta hari ere gorputzaren eta sormenaren arteko harremana interesatzen zaio. Idazleen gorputzak lanean belaualdi desberdinetako bost euskal idazle emakumezko elkarrizketatu ditu eta gai horretan sakondu dute.

Martxoak 26, ostirala  
17:00 | AUDITORIOA  
Euskara / Gaztelania



**EIDER  
RODRIGUEZ**

Idazlea, editorea, gidoigilea eta UPV/EHUko irakaslea. Literaturako Euskadi Saria 2018an *Bihotz handiegia* lanarekin (Susa, 2017)



**AIXA  
DE LA CRUZ**

Literaturaren Teorian eta Literatura Konparatuan doktorea eta idazlea. Feminismoaz eta generoaz idazten du Bilbao kazetan, eta La Marean.



**KATIXA  
AGIRRE**

Idazlea eta ikus-entzunezko komunikazioko irakaslea. *Amek ez dute* (Elkar, 2018) lanaren egilea.



**HAIZEA  
BARCENILLA**

Arte-kritikaria, komisarioa eta UPV/EHUko Artearen Historiako irakaslea.



**MARTA  
REBÓN**

Idazlea, itzultzailea eta literatura-kritikaria. Svetlana Alexiévich eta Vasili Grossman idazle errusiarrak itzuli ditu gaztelaniara eta katalanera, besteak beste.

Arg.: Oulururo



**ALEXEI  
YURCHAK**

Kultura eta Hizkuntza Antropologiako katedraduna Kaliforniako Unibertsitatean. Leninen gorpuaren kontserbazioa eta erakusketa ikertzen ditu.

Arg.: Oleg Tikhonov



**SANTIAGO  
GERCHUNOFF**

Filosofian doktorea, saiakeren eta kritika kulturalaren idazlea. *Ironía On. Una defensa de la conversación pública de masas* (Anagrama, 2019) saiakeraren egilea.



**IVÁN  
DE LA NUEZ**

Saiakeragilea, kritikaria eta komisarioa. *La balsa perpetua*, *Fantasia Roja* eta *El comunista manifiesto* lanen egilea.

## Marta Rebón, Alexei Yurchak, Santiago Gerchunoff

Martxoak 26, ostirala  
19:00 | AUDITORIOA  
Gaztelania

SOLASALDIA **IVÁN DE LA NUEZ**EKIN

### *Aquí en el Mausoleo de Lenin (Hemen, Leninen Mausoleoan)*

Lau aldeko solasaldi honetan, **Alexei Yurchakek** XX. mendeko espaziorik ezagunenetako bati helduko dio: Moskuko Plaza Gorriko Leninen Mausoleoari. Iraultzaren eta komunismoaren heriotza-ikonografiaren laburpen bat, Gerra Hotzak, arte garaikideak, auzitegi-zientziak, shock-terapia neoliberalak eta mafia errusiarrak gurutzatua. 'Hemen' globalizatu bat, Asian (Mao eta Ho Chi Min), Europan (Todor Yivkov) eta Afrikan (Agostinho neto) antzeko beste nitxo batzuk sortzen lortua.

TOPAKETA **Marta Peirano**REKIN

### *El enemigo conoce el sistema (Etsaiak sistema ezagutzen du)*

Merkea azkenean garestia izan badaiteke, doakoa arriskutsua izan daiteke (edo aske dagoena, itogarria). Hori gertatu da, hain zuzen ere, Internetekin. Garai batean sare hori gure demokraziaren elementurik dinamizatzaileena zela uste genuen, baina berehala ohartu ginen zaintzeko eta manipulatzeko tresna zela, autoritarismo global berriaren zerbitzura. Orwellek auresandako Anai Handia, gaur egun gobernu eta negozio mota guztiek erabiltzen dutena. Hau kontuan hartu eta **Marta Peiranok** sarea arakatzeko hasiko da, hain zuzen ere, gure aztarnak elikatzen den sarea arakatzeko. Minaz betetako alor horretan barna joango da, Internet ez baita hain libre, irekia eta demokratikoa. Batez ere, hizkuntza unibertsal bihurtu denetik eta burokraziaren makina bihurtu denetik.


Martxoak 27, larunbata  
13:00 | AUDITORIOA | Gaztelania



**MARTA  
PEIRANO**


Teknologian, arte digitaletan eta jagoletzan espezializatutako kazetaria.

Arg.: eldiario.es



**AMETS  
ARZALLUS**

Kazetaria, bertsolaria, idazlea eta Irungo migratzaileen Harrera Sareko kolaboratzailea. *Miñan* liburua idatzi du Ibrahima Balderekin batera.



**IBRAHIMA  
BALDE**

Migratzailea. Gineatik iritsi zen Euskal Herrira, Sahara eta itsasartea zeharkatu ondoren. *Miñan* liburua idatzi du Amets Arzallusekin batera.



**GOIZALDE  
LANDABASO**

Kazetaria eta idazlea. *Hágase la Luz* zuzentzen eta aurkezten du Radio Euskadin eta 1.362 km euri (Elkar, 2019) lana idatzi du, besteak beste.

## Amets Arzallus eta Ibrahima Balde

Martxoak 27, larunbata  
17:00 | AUDITORIOA  
Euskara / Frantsesa

SOLASALDIA **GOIZALDE LANDABASO**REKIN

### *Hormak eta zeharkaldiak*

2019an argitaratu zenetik, handia izan da *Miñan* liburuak egin duen ibilbidea. **Amets Arzallus** eta **Ibrahima Baldek** idatzia, lehenak letra-idatzira pasa zuen bigarrenak ahoz kontatu zion istorio lazgarria. Gineako Errepublikan jaio zen **Balde**, eta haren anaia txikiaren bila abiatu zen Afrika iparrerantz. Hala, Gibraltarko itsasarterainoko bidaia kontatzen da liburuan. Saio berezi honetan, Arzallusek Ibrahima elkarrizketatuko du, liburukoez ez ezik, ondoren, Europara jauzi egitea lortu zuenean, gertatutakoen inguruan. Migrante baten istorioa lehen pertsonan kontatua, ohiko komunikabideetako titularren azpian dagoen letra txiki joria ezagutzeko parada bakana.

**David Le Breton, Anna Maria Iglesia eta Lara Moreno**SOLASALDIA **TXANI RODRIGUEZ** EKIN**Caminar, encontrarse, distanciarse (Ibili, elkar topatu, aldentu)**

Ibiltzea ibiltze hutsak ematen duen plazeragatik askatasunez jardutea da, irautzen ditu tokiei esleitutako funtzioak eta noranzkoen nahitaezko norabidea. Denbora araututik urruntzea dakar, eta nork bere buruarekin, gorputzarekin, pentsamenduarekin, oroitzapenekin eta besteekin topatzea ere bai. **David Le Bretonek** filosofia oso bat garatu du, *Éloge de la marche* obra ospetsuan, irteteko eta mugitzen hasteko ekintza soilaren inguruan. Ariketa arriskutsua da maiz, edo gaizki ikusia emakumeek egiten badute, **Anna Maria Iglesias** *La revolución de las flâneuses* lanean erakusten duen bezala. **Lara Moreno** alokairuan bizi zen. Gogoko zuen, nahi zuenean joan zitekeelako. Ez zuen etxe bati, auzo bati lotuta egon behar. Madrilgo leku askotan bizi izan zen, inguruko herri bateko etxe batean ere bai. Ohartu zen mugitzeko askatasun hori murrizten ari zela, alokairuen prezioak gora egin ahala. Ahal zuen lekura aldatzen zen, ez nahi zuen lekura, eta aldaketa horiek kontuan hartuta *Deshabitar* idatzi zuen.

Martxoak 27, larunbata  
19:00 | AUDITORIOA  
Gaztelania / Frantsesa**DAVID  
LE BRETON**

Soziologoa eta antropologoa. Frantziako egile garaikiderik nabarmenetako bat da antropologia-ikasketetan.

**ANNA MARÍA  
IGLESIA**Filologoa eta kultura-arloko kazetaria. *La narrativa del espacio urbano y de sus prácticas. El París del XIX y la flânerie* tesiaren egilea**LARA  
MORENO**Idazlea. *Por si se va la luz* (Lumen, 2013), *Piel de lobo* (Lumen, 2016) eta *Tempestad en víspera de viernes* (Lumen, 2020) lanen egilea.**TXANI  
RODRIGUEZ**Idazlea, kazetaria, gidoilaria eta idazketa sortzaileko irakaslea. *Los últimos románticos* (Seix Barral, 2020) lanaren egilea.

Arg.: Samuel de Román

Arg.: Miguel San Cristóbal

TOPAKETAK ETA  
HITZALDIAK

HAN

Gutun Zuria bere muga fisiko eta presentzialetatik harantz hedatzen da, Bilbotik mundu osora (**HARA**) zabaltzen den **HEMEN online** batekin, hainbat egileren parte-hartzea testuinguruan kokatuz, beste herrialde batzuetan duten beren 'hemen' horretatik.**KUBATIK**

ARTISTA X ARTISTA (HABANA)

**Martica Minipunto**  
*Escribir con la lengua*  
(Mihiarekin idazten)

«Nire sormen prozesuak desautomatizatzeke, mihiarekin gauzak nola egin galdetu ditut neure buruari. Galdera hori behin eta berriz entseatu nahi dut gorputzarekin, orrietan, objektuetan, gelditasunean. Mihia dantzatzeko hitzak murmurikatzen, idazketa/irakurketa alfabetikotik 'irudikapen hutsaren' logikarik gabe inprobisatzen duen muskulu baten harikortasunera igarotzen naizen bitartean. Habanan nago, Kuban, mihia ateratzen dut leihotik».

Martxoak 24, asteazkena  
20:30 | Gaztelania**MARTICA  
MINIPUNTO**

Idazlea eta performerra. Bere arte bizien prozesuak artxibo familiarak eta historikoak berrikusten dituzte eta esperimentazioa bultzatzen dute.

**ARGENTINATIK**

PLATAKO UNIBERTSITATE NAZIONALA (BUENOS AIRES)

**Damián Tabarovsky**  
*El aquí como respuesta excéntrica*  
(Hemen, erantzun bitxi gisa)

«1794an, bere gelan 42 egun pasatzera kondenatua izan ondoren, Xavier de Maistre bere maisulana idatzi zuen: Nire gelaren inguruko bidaia. Orduetik hona, paradoxa hau gertatu da: itxialdia izaten da bidaia-eleberriak handien arrazoietako bat. Adibide gehiago eman nitzake. Eta denek gauza bera esango lukete: hemen edo han (Argentina 'acá o allá' esaten duguna) eraikuntzak dira, ez egia. Normaltasun berriari aurre egin behar diogu, ez normaltasun zaharrera -neoliberal eta basatira- itzuliz, baizik eta bitxikeria berriak asmatuz».

Martxoak 25, osteguna  
17:00 | Gaztelania**DAMIÁN  
TABAROVSKY**Eleberrigilea, itzultzailea eta saiakeragilea. Eleberrietan, umorea eta erudizioa uztartzen ditu. Bere lanen artean *Literatura de izquierda* (Periferica, 2010) saiakera nabarmendu behar da.

Arg.: Bárbara Scotto

ARTISTA X ARTISTA

**MOROKOTIK**

BOULTEK - CENTRE DES MUSIQUES ACTUELLES (CASABLANCA)

**Salah Malouli**  
*Cultura contemporánea en Darija* (Kultura garaikidea Darijan)

Darijako sorkuntza garaikidea (berbera, arabiera eta frantses eta espainiera apur bat nahasten dituen tokiko hizkuntza ez-ofiziala) kultura- eta hiri-adierazpide berri baten ibilgailu bihurtu da, rap, komiki, slam, podcast eta YouTubeko sorkuntzarekin gurutzatuta. Marokon eta Mediterranearen hegoaldeko beste herrialde batzuetan gertatzen ari den paradigma-aldaketaren adierazgarri.

Martxoak 26, ostirala  
20:30 | Gaztelania**SALAH  
MALOULI**

Arte garaikidearen, komikiaren eta street art-aren inguruko hainbat proiekturen zuzendari artistikoa eta komisarioa.



Sartu Azkuna Zentroaren Youtubeko kanalean edukia zuzenean jarraitu ahal izateko. [Sarrera dohainik](#)





# ARGITALPEN- EKOIZPENAREN

## INGURUKO TOPAKETAK

Argitalpen-ekoizpenak eta artearen sistemarekin duen loturak markatuko dituzte Gutun Zuriaren goizeko topaketak. Jaialdian Azkuna Zentroaren azken argitalpenak aurkeztuko dira, praktika artistiko garaikidea jasotzen dutenak, ezagutu eta zabaltzeko ahal izateko. Corpus editoriala, Zentroko programazio-ildoen inguruko erakusketa, saiakera eta liburuen katalogoek osatzen dute.

### *El ensayo empieza aquí* (Saiakera hemen hasten da) CANICHE, 2021

Martxoak 23, asteartea  
18:00 | AUDITORIOA  
Euskara / Gaztelania

2020an, Gutun Zuria ezin izan zen egin, baina proiektuak zabalik jarraitu du denbora errealeko saiakera gisa, eta testu kolektibo bat sortu da, iazko edizioan parte hartu behar zuten egileen idatzitako argitaragabeetatik abiatuta. Saiakera kolektibo bat, literatura-generoaren kortseaz harago, prozesu kultural gisa, kultura egoteko eta jarduteko modu gisa jorratua.

Pandemiak liburu honen orrialdeetara eraman zuen jaialdia, eta hor jarraitu duten pentsatzen eta idazten: **Katixa Agirre, Paul B. Preciado, Txomin Badiola, Ernesto Castro, Aixa De La Cruz, Iván De La Nuez, Aingeru Epaltza, Iñaki Esteban, Mari Luz Esteban, Anjel Lertxundi, Marta Peirano, Fernando Pérez, Marta Rebón, Ixiar Rozas, Beñat Sarasola, Damián Tabarovsky** eta **Alexei Yurchak**. Argitalpena iazko edizioaren finkapena eta aurtengo Jaialdiaren abiapuntua da. Aurkezpen honetan parte hartuko dute Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbaoko zuzendari **Fernando Pérezek**, Gutun Zuriaren idazle eta aholkulari **Iván de la Nuezek** eta **Caniche Editorialeko Patxi Eguiluzek**.



**AIINGERU  
EPALTZA**  
Kazetaria, idazlea eta itzultzailea.



**IÑAKI  
ESTEBAN**  
Filosofia eta Letretan lizentziatua, kazetaria eta idazlea




**MARTA  
PEIRANO**  
Teknologian, arte digitaletan eta jagoletzan espezializatutako kazetaria.



**MARI LUZ  
ESTEBAN**  
Gizarte Antropologiako irakaslea UPV/EHU.



**ANJEL  
LERTXUNDI**  
Idazlea, literatura-kritikaria eta kazetaria.




**DAMIÁN  
TABAROVSKY**  
Novelista, traductor y ensayista



**ALEXEI  
YURCHAK**  
Kultura eta Hizkuntza Antropologiako katedraduna Kaliforniako Unibertsitatean.



**IXIAR  
ROZAS**  
Ikertzailea eta idazlea.



**BEÑAT  
SARASOLA**  
Idazlea eta ikertzailea.



**KATIXA  
AGIRRE**  
Idazlea eta ikus-entzunezko komunikazioko irakaslea.



**PAUL B.  
PRECIADO.**  
Filosofoa eta arteko komisarioa.



**TXOMIN  
BADIOLA**  
Artista eta idazlea



**ERNESTO  
CASTRO**  
Filosofian doktorea era saiakeragilea.



**AIXA  
DE LA CRUZ**  
Literaturaren Teorian eta Literatura Konparatuan doktorea eta idazlea.



**IVÁN  
DE LA NUEZ**  
Saiakeragilea, kritikaria eta komisarioa.





## Acromática. Una Partida Inmortal

(Akromatikoa. Partida Hilezkorra)

AZKUNA ZENTROA, 2021

Martxoak 24, asteazkena  
12:00 | AUDITORIOA  
Gaztelania

Arte bisualei buruzko topaketa honetan, **Mabi Revuelta** artistaren *Acromática. Una Partida Inmortal* erakusketaren katalogoa aurkeztuko da. **Susana Blas** da komisarioa, eta apirilaren 11ra arte dago ikusgai erakusketa-aretoan.

Katalogoa 'erakusketa hedatua' da; bertan, erakusketaren hiru zatiak erreproduzitzen dira, eta atzera begirako atal bat du, **Mabi Revuelta**ren ibilbide artistiko osoko 40 artelan baino gehiagoren fitxa katalogafikoak aurkezten dituena. **Susana Blasen** saiakera kurtatorialarekin batera, xakean aditu Antonio Gudek eta arte garaikideko kritikari eta teoriarari Luis Francisco Pérezek idatzitako testuak agertzen dira.

Aurkezpenean, **Mabi Revuelta** artistak, **Susana Blas** komisarioak eta erakusketa-proiektuaren eta katalogoaren diseinatzailea den **Iñigo Ordozgoitik** hartuko dute parte.



MABI  
REVUELTA

Artista bisuala. Gure Artea Saria 2016an. Aldi berean aritzen da artista plastiko gisa, irakaskuntzan eta artearen pedagogia berriei buruzko ikerkuntzan.



SUSANA  
BLAS

Arte garaikidearen komisarioa eta historialaria. Ikus-entzunezko sorkuntzan espezializatua, egungo arteaz eta feminismoez idazten du.



IÑIGO  
ORDOZGOITI

Artista, diseinatzailea eta ilustratzailea.



ARANTXA  
PEREDA

Historialaria, ikertzailea eta Artearen historia, Ondare artistiko eta Museoetako irakaslea.



MIKEL  
BILBAO SALSIDUA

Artearen historialaria, ikertzailea eta UPV/EHUko Artearen Historia Saileko irakaslea.

## Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao. Ardoen biltegitik Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentrorra

AZKUNA ZENTROA, 2021

Martxoak 25, osteguna  
12:00 | AUDITORIOA  
Gaztelania

Bilbok beste alondegi batzuk izan zituen, zerbitzu guztiak eraikin berean zentralizatu aurretik 1909tik aurrera. Azkuna Zentroaren hamargarren urteurrenean argitaratutako ikerketa-liburu honek bizitza zoragarri eta interesgarri horren ehun urtetik gorako ibilbidea egiten du.

Argitalpen honen ardatza dira Ricardo Bastidaren Udal Alondegiaren proiektuaren aurreko egoera eta arkitektoak Bilboko hiria garatzeko izan zuen interesa. Era berean, 60ko hamarkadan itxi ondoren izandako proiektuak eta erreformak aztertzen ditu, Philippe Starcken proposamena eta Bilboko egungo Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroaren sorrera ondorio izan zituztenak. Artearen historiako profesionalak diren **Mikel Bilbao Salsidua** eta **Arantxa Pereda Angulok** egin dute ikerketa, eta haiek egingo dute aurkezpena eta zehaztuko dute historia gorabeheratsu hau, Azkuna Zentroko zuzendari Fernando Pérezekin hizketan.

## Gorputzak, desirak eta alمندratzuk. Sra. Polaroiskaren film bat

SRA. POLAROISKA, 2021

Martxoak 26, ostirala  
12:00 | AUDITORIOA  
Gaztelania

**Sra. Polaroiskako Alaitz Arenzana** eta **María Ibarretxe** Azkuna Zentroko artista AZKideek aurkeztuko dute lan hau. Gidoi formatuan, bidaia bat proposatzen dute Francoren diktaduran hazitako 70 urtetik gorako sei emakumeren unibertso pertsonal, sentsual eta afektiboan zehar.

Ángela, Mikele, Elena, Alicia, Belén eta Luisa Francoren diktaduran hazi zen belaunaldi batekoak dira. Haien ahotsek kontatuko dute nola izan ziren heziak, errefuxiatu politikoak, neskameak, andregaiak, maitaleak, ikasleak... Nolakoak izan ziren haien familiak, inguruak eta koskortu zireneko garaia.

**Sra. Polaroiskaren** proiektu artistiko hau izango da, hain zuzen, artearen eta genero-ikuspegiaren arloko artistek eta ikertzaileek parte hartuko duten topaketaren abiapuntua; eta, bestek beste, **Haizea Barcenilla** eta **Bea Aparicio**.



SRA.  
POLAROISKA

Kolektibo artistiko honen obrak zinema esperimentalak, ekintzako arteak, eta sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. Gure Artea Saria 2017an.



HAIZEA  
BARCENILLA

Arte-kritikaria, komisarioa eta UPV/EHUko Artearen Historiako irakaslea.



BEA  
APARICIO

Marraskilaria, ilustratzailea eta artearen eta praktika artistiko feministen irakaslea.



# PROGRAMA PUBLIKOA HEMEN

## Argialetxe independenteen topaketa 'Hemen'go ahotsak edizio independentean

Martxoak 27, larunbata

10:00 | AUDITORIOA

Gutun Zuria edizio independentearen topagunea da berriz, zigilu handi baten mende ez dauden argialetxeen lanbidea erakutsiko duen ekitaldi ireki batekin. 2020an pandemiak asmoak izoztu zituen. Hala ere, konfinamenduan asko izan ziren gurutzaguneak eta elkarri laguntzeko formulak. Isildu ez ziren ahots anitzen hilarria irudikatu nahi dugu.

Bilboko **consonni** argialetxearen koordinaziopean, 2019ko topaketaren hariari jarraituko zaio, orduan, ondorioetako bat izan baitzen «argialetxe independenteak garrantzitsuak garena, asko garelako». Ekitaldi honek bibliodibertsitatea aldarrikatzen du. Aurrez aurreko eta bideoa ahotsen koreografia bat biltzen du, edizio-mota desberdinez hitz egiteko, hor artisau-lana lehenesten baita fabrikazioaren aurretik, eta etengabeko hausnarketa egiten baita ekoizpen moduei buruz. Tokiko eta estatuko hainbat eragilek osatutako mosaiko bat da, eta, aurretik, Latinoamerikako ahotsak batuko zaizkie.

Oraingoz konfirmatuta dauden argialetxeak: **Continta Me Tienes** (Madril), **Katakarak** (Iruñea), **Pepitas de Calabaza** (Logroño), **Susa Literatura** (Zarautz), **Hoja de Lata** (Gijón), **Editorial Tránsito** (Madrid), **Txalaparta** (Tafalla), **Sans Soleil** (Vitoria-Gasteiz), **Rayo Verde** (Bartzelona), **Impedimenta** (Madril), **Alpha Decay**, (Bartzelona), **Capitán Swing** (Madril)....

## Gutun Zuria Irratia. Jaialdiaren irratia

Martxoak 24, asteazkena

Martxoak 25, osteguna

18:30 | KULTUREN ATARIA

Gutun Zuria irratia moduan ere zabaltzen da edizio honetan. Lehen aldiz, jaialdiak **Gutun Zuria Irratia** izango du, publiko berrietara iristeko kanal berria. Atrioaren erdiko kuboan dago, fisikoki —lehen Infopuntua—, eta soinu-leiho hori kanporantz irekitzen da. Jaialdiarekin elkartzeko gune berri bat sortzen du, eta edukien artxibo bihurtzen da, soinu-artxiboaren banku. **Gutun Zuria Irratia Idoia Jauregi** kazetariak zuzenduko du, eta in situ eta streaming bidez entzun ahal izango da.

## LiburudendAZ. Azkuna Zentroko Liburudenda

Martxoak 18 > 28

KULTUREN ATARIA

**DendAZ**, Azkuna Zentroko denda, **LiburudendAZ** da, **Jaialdiaren liburu-denda**, argitalpen-ekoizpenaren erreferentziako gunea, eta, besteak beste, Az argitalpenen corpusa du, praktika artistiko garaikidea biltzen duena, ezagutzeko eta zabaltzeko. Zentroko programazio-lerroen inguruko erakusketen, saiakeren eta liburuen katalogoek osatzen dute. Bestalde, **LiburudendAZen** daude eskuragarri Auditorioko hitzaldietarako sarrerak.

Era berean, **LiburudendAZ** erreferentziako tokia da Jaialdiaren arratsaldeko saioen ondoren liburuak sinatzeko.

## Deriben katalogoa: Ariadnaren haria

Martxoak 25, osteguna

13:00 | MEDIATEKA BBK

**Oscar Gómez Mata**, Azkuna Zentroko artista AZKideak eta **Espe López** artistak proposamen berri bat aurkeztuko dute Deriben katalogoa proiektuaren barruan: Ariadnaren haria. Esperientzia desberdin baten bidez Zentroa ezagutzeko modu gisa planteatu da, edo hirian zeharreko ibilbide berezi batean murgiltzeko, zenbait argibide eta arrasto jarraituz.

Kasu honetan, Ariadnaren haria Mediateka BBKra pentsatutako deriba bat da. Banakako bidaiaria bat, 'Zer egiten dut nik hemen?' galdera joan-etorriaren muinean jartzen duena. 'Ariadnaren hariari' tira egitea proposatzen du, espazio bat aurkitzeko eta, aldi berean, barneko paisaiatik bidaiatzeko. Zoria agertzen uztea, gure urratsek eta gure pentsamenduek marrazten duten labirintoan nahas dadin.

## Gutun zuriaren 'Irakurketa kultura' kluba

Martxoak 24 > 26

Asteazkena > Ostirala

18:00-19:00 | MEDIATEKA BBK

Gutun Zuriaren **'Irakurketa kultura' klubak** kulturaren iraganari, orainari eta etorkizunari buruzko hainbat gairi buruz hitz egitera eta gogoeta egitera gonbidatzen du: diziplinek izaten dituzten aldaketak; hizkuntzarekin duten erlazioa; denboran irauten duen ondasun gisa duten balioa; mugak edo garrantzia.

Klub honetan 90 minutuko sei saio egingo dira, jaialdiaren aurretik eta jaialdian, 18:00etatik 19:30era. Saio guztiak TK101en egiten dira, eta zortzi lagun sartzen dira gehienez.



**ENEKO  
AIZPURUA**

Itzultzailea eta idazlea.

Arg.: Gorika Rubio



**IVÁN  
DE LA NUEZ**

Saiakeragilea, kritikaria eta komisarioa.



**MARCO  
D'ERAMO**

Kazetaria eta idazlea.



**CRISTINA  
DE MIDDEL**

Artista eta argazkilari dokumentala.



**NAJAT  
EL HACHMI**

Idazlea.



## KAPSULAK

Gutun Zuriak bere formatuetan dibertsifikatzen du, Jaialdira joateko modu berriak proposatuz. Horra hor, esate baterako, hogeit hamar artista eta idazle baino gehiagoren **multimedia kapsulak**, gonbidapena onartu baitute bakoitzak bere espaziotik parte hartzeko.

**Eneko Aizpurua, Iván de la Nuez, Marco d'Eramo, Cristina de Middel, Najat El Hachmi, Gonzalo Elvira, Iñaki Esteban, Mari Luz Esteban, Joan Fontcuberta, Alicia Kopf, Glenda León, Anjel Lertxundi, Beñat Sarasola, Alasne Martin, Fernando Pérez.**

Webgunean aurkitu daitezkeen lekukotasunak dira, baita Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdi honen artxiboa eta memoria ere.



**GONZALO  
ELVIRA**

Artista.



**JOAN  
FONTCUBERTA**

Artista bisuala, argazkigintzako sortzailea, komisarioa eta historialaria.



**ALICIA  
KOPF**

Idazlea eta artista.



**GLENDA  
LEÓN**

Artista bisuala.

Arg.: Leandro Feal



**IÑAKI  
ESTEBAN**

Kazetaria eta idazlea.



**MARI LUZ  
ESTEBAN**

Gizarte Antropologiako irakaslea UPV/EHUn.

Arg.: Jon Urbe



**BEÑAT  
SARASOLA**

Idazlea eta ikertzailea.



**ALASNE  
MARTIN**

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Mediateka BBK-ko arduraduna.



**ANJEL  
LERTXUNDI**

Idazlea, literatura-kritikaria eta kazetaria.

Arg.: Erein




Sartu Azkuna Zentroaren Youtubeko kanalean edukia zuzenean jarraitu ahal izateko. [Sarrera dohainik](#)

# ARTISTAS




ENEKO  
AIZPURUA



BEÑAT  
SARASOLA



GONZALO  
ELVIRA



IÑAKI  
ESTEBAN



MARI LUZ  
ESTEBAN



IVÁN  
DE LA NUEZ



ALASNE  
MARTIN



CRISTINA  
DE MIDDEL



JOAN  
FONTCUBERTA




ANJEL  
LERTXUNDI




MARCO  
D'ERAMO



NAJAT  
EL HACHMI



ALICIA  
KOPF



GLENDA  
LEÓN



SALAH  
MALOULI



IMMA  
PRIETO



DAMIÁN  
TABAROVSKY




MARTICA  
MINIPUNTO




MARTHA  
ROSLER



MARCELO  
EXPOSITO



ARANTXA PEREDA



BEA APARICIO



AINGERU EPALTA



IÑIGO ORDOZGOITI



MABI REVUELTA




PAUL B. PRECIADO



MIKEL BILBAO



KATIXA AGIRRE



SUSANA BLAS




TXOMIN BADIOLA



IXIAR ROZAS



SRA. POLARISKA




HAIZEA BARCENILLA



ERNESTO CASTRO





MIREN AGUR MEABE



MARGARYTA YAKOVENCO



KAOUTHER ADIMI



TXANI RODRIGUEZ



AMETS ARZALLUS



GOIZALDE LANBASO




MARTA REBÓN



OLGA NOVO




MARTA PEIRANO




IBRAHIMA BALDE




SANTIAGO GERCHUNOFF




YURI HERRERA



ARRATE HIDALGO



ANARI ALBERDI



ANNA MARÍA IGLESIA




ALEXEI YURCHAK




IÑIGO ASTIZ



ITXARO BORDA




MÓNICA OJEDA




EIDER RODRIGUEZ



LARA MORENO



AIXA DE LA CRUZ



DAVID LE BRETON

B

Bilbao

# gizartea eta kultura garaikidea

#gutunzuria  
azkunazentroa.eus

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO